



BEREIZMEN HANDIKO MANOMETRIA ESOFAGIKOA

ZER DA PROBA HAU?

Manometria esofagikoaren bidez, esofago barruko presioa eta mugimenduak neurtzen dira.

ZER EGIN BEHAR DUT PROBA EGIN AURRETIK?

- **Aurreko egunean EZ duzu opiazeorik hartu behar** [morfina, fentanilo (Fentanest®) ...], **ezta prozinetikorik ere** [zinitaprida, metoklopramida (Primperan®) motakoak]. Gainerako medikazioa har dezakezu.
- **Baraurik egon behar duzu** aurreko gauetik, **gutxienez 8 orduz** (ezin duzu solidorik hartu, ez eta likidorik ere, ura barne).
- **Akalaria susmoa dela eta, mamometria eginez gero, froga aurreko egunean dieta likidoa egin beharko duzu:** infusioak, salda, kafea, edari isotonikoak...**ezingo duzu elikagai solidorik hartu.**
- Proba goizez egingo dizute, PROBA FUNTZIONALEN ATALEAN, 7.D SOLAIRUAN. Eman bolantea idazkaritzan unitatera iristen zarenean.

PROBA NOLA EGINGO DIDATE?

- Zunda mehe eta malgu bat sartzen da sudurretik urdaileraino. Zunda behar bezala kokatuta dagoela egiaztatu ondoren, azterketa hasiko da. Gorputzak ondo jasaten du eta ez da anestesiarik behar.
- Miaketan, ohatila batean etzanda egongo zara eta ura emango zaizu zurrupada txikiak har ditzazun behin eta berriz.
- Probak 20 minutu irauten du, gutxi gorabehera.

PROBA EGIN ONDOREN

Betiko bizimodua egin dezakezu. Erregistroa analizatuko dute, eta emaitza eskatu zuen medikuari bidaliko zaio.

Harremanetarako telefono-zenbakiak:

Kontsultara joaterik ez baduzu edo hitzordua aldatu behar baduzu deitu 945 00 75 00 telefono-zenbakira.